



Hendaye, le 11 septembre 2017

Objet : Hendaia Euskaraz 2018

Madame, Monsieur

Dans le cadre de la promotion et du soutien à la langue basque, cela fait maintenant 8 ans que la Commission Municipale Euskara organise au mois de mars « Hendaia Euskaraz, le mois de la langue basque à Hendaye ». Dans ce cadre, nous avons déjà abordé les thèmes suivants : les services municipaux, les associations, les commerces, la santé et la transmission, les loisirs, les langues minoritaires et le premier mot en basque.

La 9<sup>ème</sup> édition aura lieu **du 8 au 18 mars 2018** autour du thème « **L'euskara dans l'univers numérique** ». Les associations et les services municipaux hendayais qui souhaitent y participer sont à nouveau les bienvenus.

Cette année encore, la Commission municipale Euskara s'est jointe au groupe « Euskara Taldea », composé de citoyens hendayais désireux de s'impliquer en faveur de la langue basque, pour créer une dynamique autour de cette manifestation. Une journée festive organisée par les associations hendayaises aura lieu le **samedi 17 mars 2018** au fronton Daniel Ugarte. Nous invitons les associations qui souhaitent participer à l'organisation de cette journée à assister à une réunion qui aura lieu :

**le jeudi 21 septembre à 18h00 en Mairie,  
Salle des Commissions.**

Concernant vos propositions d'activités, nous vous invitons à les faire parvenir au Service Euskara avant le 27 octobre 2017 en remplissant la fiche ci-jointe et en l'envoyant par courrier électronique ([euskara@hendaye.com](mailto:euskara@hendaye.com)) ou postal. Pour plus d'information, vous pouvez contacter le service au 05.59.48.23.23 ou 06.83.73.64.98.

Nous vous demandons de réfléchir à des actions concertées, si possible en rapport avec le thème, et présentant un réel intérêt pour le public hendayais. Les propositions qui ne seront pas retenues pour le mois de mars pourront faire l'objet d'une programmation à un autre moment.

Nous comptons sur votre participation et votre engagement en faveur de l'euskara. Recevez, Madame, Monsieur, nos plus sincères salutations.

Le Maire,  
Conseiller départemental des Pyrénées Atlantiques

  
**Kotte ECENARRO**

Hendaian, 2017ko irailaren 11n

Gaia: Hendaia Euskaraz 2018

Jaun/Andere agurgarria,

Euskararen bultzatze eta sustengatzearen baitan, badu orain zazpi urte Udal Euskara Batzordeak "Hendaia Euskaraz, euskararen hilabetea" antolatzen duela martxoan. Horren kariatara, honako gai hauek landu ditugu orain arte: Udal zerbitzuak, elkarteak, saltegiak, osasungintza, transmisioa, aisialdiak, hizkuntza gutxituak eta lehen hitza euskaraz.

9. edizioa **2018ko martxoaren 8tik 18ra** iraganen da, "**Euskara ingurune digitalean**" gaiaren inguruan. Ekitaldi horretan parte hartu nahi duten Hendaiaiko elkarte eta herriko zerbitzu guztiak berriz ongi etorriak dira.

Aurten ere, Udal Euskara Batzordea eta euskararen alde lan egin nahi duten Hendaiaiko herritarrek osaturiko "Euskara Taldea" elkarte dira, ekitaldi horren inguruan dinamika baten sortzeko xedearekin. Hendaiaiko elkarteek antolatutako beste egun bat iraganen da **2018ko martxoaren 17an**, Daniel Ugarte pilotalekuan. Egun horren antolakuntzan parte hartu nahi duten elkarteak bilkura batera gomititzen ditugu:

**Irailaren 21ean (osteguna), 18:00etan,  
Herriko Etxeko Batzordeen Gelan.**

Zuen jarduera proposamenei dagokienez, Euskara zerbitzuari 2017ko urriaren 27a aitzin helaraztera gomititzen zaituztegu, mezu elektronikoz ([euskara@hendaye.com](mailto:euskara@hendaye.com)) edo postaz, honi erantsiriko fitxa betez. Xehetasun gehiagorako, Euskara zerbitzua dei dezakezue, 05.59.48.23.23 edo 06.83.73.64.98 telefono-zenbakietara.

Eskatzen dizuegu ahal bada gaiari lotuak diren, eta Hendaiaiko publikoarentzat egiazki interesgarriak diren elkarlaneko ekintzak asmatzeko. Martxorako atxikiko ez diren proposamenak agian urteko beste momentu batean programatzen ahalko dira.

Zuen parte hartzearekin eta euskararen aldeko engaiamenduarekin kontatzen dugu. Besterik gabe, onar itzazue gure agurrik euskaltzaleenak.

Auzapeza,  
Ririnio Atlantikoetako departamenduko  
kontseilaria